

EpaiDigitala (Webex) jarduketa judizialetan parte hartzea

Organoaren jakinarazpena

Deialdia egiten duen organoak mezu elektronikoa bat bidaliko dio parte-hartzaile bakoitzari, ekitaldiaren datuekin (eguna eta ordua), eta sartzeko estekarekin.

Konexioa egiteko behar diren baliabideak

- Mahai gainekoa edo ordenagailu eramangarria, Windows 10 eta Microsoft Edge, Google Chrome edo Mozilla Firefox nabigatzaileen bertsio eguneratuekin.
- [Nabigatzailea](#) edo [aplikazioa](#) erabiliz nola konektatu azaltzen duen bideoa ikus dezakezu.
- Interneterako sarbidea duen telefono mugikorra edo tableta. [Mugikorra edo tableta erabiliz](#) nola konektatu azaltzen duen bideoa ikus dezakezu. Gomendagarria da [Webex konexiorako test bat egitea](#), gailuaren bateragarritasuna egiaztatzeko eta irudiaren eta audioaren kalitatea egiaztatzeko.
- Kamera, mikrofonoa eta bozgorailuak. Mikrofonoa duten entzungailuak erabiltzea gomendatzen da, zaratak saihesteko.
- Interneterako konexio ona. Zure konexioa egiaztatu [hemen](#).

Bilerara sarbidea

- Sartzeko, egin klik email bidez jasotako gonbidapeneko bilera-estekaren gainean (edo kopiatu eta itsatsi nabigatzailean).
- Informazio gehiago nahi izanez gero, ikus [kanpoko gonbidatuentzako eskuliburua](#).

Identifikazioa

Funtzionarioak pertsona horren identifikazioa egiaztatuko du.

Desgaitasunen bat duen pertsonari buruzko prozesuetan kontuan hartu beharrekoa

- Elkarriketak isilpekoak dira, pertsonaren intimitateari eragiten baitiote.
- Bilatu intimitate hori gordeko duen lekua eta sahiestu areto komunetan, korridoreetan... egitea.
- Hitz egin behar dutenez, sahiestu distrakzioak eta kanpoko esku-hartzeak.
- Artatzen dituztenek (zaintzaileak, senideak, langileak) erraztzaile gisa joka dezakete komunikatzeko zailtasunen bat badute.

WEBEXEKO OHIKO AKATSAK ETA NOLA KONPONDU




Soinua akoplatzen da aretoan?

- Frogen-pantailaren bolumena isildu edo jaitsi.
- Isildu magistratuen ordenagailuak edo aretoan Webexera konektatuta dauden pertsonak.
- Egiaztatu aretoan ez dagoela webcam-ik edo mikrofono gehigarririk entxufatuta.
- Soinu-froga bat erreproduzitu behar baduzu, sartu gida honetan.



Ezin duzu lobbyra mugitu?

- Bere izenaren ondoan gezi gorria badu, aurkezlea da.
- Parte-hartzaileak panelean, egin klik eta arrastatu aurkezlearen bola gezi gorriarekin, antolatzailekide edo antolatzailearen izeneraino.
- Onartu mezua eta lobbyra mugitu ahal izango duzu.



Ezin da dokumentua partekatu?

- Aurkezle rola eman behar diozu parte-hartzaileari, partekatu dezan.
- Parte-hartzaileen panelean, egin klik aurkezlearen bolan eta onartu agertzen den mezua.
- Izenaren ondoan gezi gorri bat ikusten duzunean, dokumentuak partekatu ahal izango dituzu.



Arazoak izaten jarraitzen duzu?

- Zure zalantzak bidali nahi badizkiguzu, bidali helbide honetara:
Informatika.Formakuntza@justizia.eus